


2007eko UDALERAKO HAUTESKUNDEAK



Azken ordura arte zalantzan egon arren, PSE-EEK 11 zinegotzi lortu zituen azkenean. Benjamin Atutxa alkatearekin garaipena ospatzen, berria jakin bezain laster.



Botoemaile gutxiago baina aldaketa bakarra: PPK galdutako zinegotzia EB-Aralarrek irabazi du

Arriolak gehiengo osoari eutsi dio

LAU URTEKO LEGEGINTZALDIAK EZ DITU GAUZAK LARREGI ALDATU GURE HERRIAN eta aurrekoan izandako zinegotzi banaketa ia berbera gertatu da oraingoan ere. Ez hori bakarrik, PSE-EEK gehiengo absolutua lortu du bigarren bez. Ezker Batuak zinegotzi bat irabazi duen bitartean, PP-k zituen bietatik bat galdu du: ez dago besterik.

Datu aipagarriena, izatekotan, abstentzioaren igoera da, oraingoan 2003koa baino %10 handiagoa. Horrekin lotuta, alderdi guztiek botoemaile gutxiago izan dituzte hauteskunde hauetan, Ezker Batuaren kasua

kenduta. Eta hauek ere, Aralar lagun dutela hartu dute parte.

PSE-EEri zinegotzi kopuru berbera lortzea, orain lau urtekoarekin konparatuz, ia 1.700 boto merkeago ateratu zaio oraingoan. EAJ-PNV-k eta EAk orduan batera eskuratutako zinegotzietatik bost eta bestearendako bi, hala egin da banaketa, hainbat hauteskunderen batera joan eta gero. EA-ANV ilegalizatu egin dute gure herrian eta euren aldeko botoak baliogabetu; hala ere, boto baliogabeak kontuan hartuz, proiektzioa eginda hiru zinegotzi izango lituzke. Badira beste tendentzia bi oraingoan ere be-

rratsi direnak: alde batetik, EB-ren igoera (Aralarrek ez zuen orain dela lau urte parte hartu); eta, bestetik, PP-ren jaitsierarako joera, oraingoan zinegotzi bakarrekin geratzea ekarri duena.

Hurrengo legealdirako zinegotzietatik dagokienez, aurpegiak ere ez dira asko aldatu: 21etik bost dira bakarrik berriak. PSE-EEen, esaterako, hamaikako osoak errepikatuko du.

BATZAR NAGUSIAK

PSE-EE	5.378	(%37'5)
EAJ-PNV	3.083	(%21'5)
EB-Aralar	1.296	(%9'0)
PP	1.249	(%8'7)
EA	1.130	(%7'9)
Berdeak	120	(%0'8)
Baliogabeak	1.833	(%12'8)
Zuriak	218	(%1'5)

Eibarko datuak



11



5



2



2



1

EMAN CONSULTING, S.L.

APARTA, BERRIA, PRAKTIKOA eta GAURKOA

AHOLKULARITZA ETA CONSULTING

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa

GIZA ERREKURTZOAK

- Enpresako komenio eta hitzarmenak

PERTSONALAREN AUKERAKETA

STAFF OROKORRA

- KRISIALDIAN DAUDEN ENPRESAK BERRIRO MARTXAN JARRI

AUDITORIARIK

- KOMENIO ESTRAJUDIZIALAK

ORDAIN-ETENALDIAK

- ASEGURU PRIBATUAK

KALITATE ARAUAK



MAILAK TRUST, S.L.

TRANSAKZIO INMOBILIARIOAK
KOMUNITATEEN GESTIOA

- ETXE ETA LOKALEN SALEROSKETA

- ALOKAIURUAK

- TRASPASOAK

- BALORAZIOAK

- PERITAJEAK

- SUBENTZIOAK

- KREDITU OFIZIALAK

- BANKU KREDITUAK

J. Etxeberria, 5 (EIBAR) Tel. 943 200 336 / 943 200 069 Faxa: 943 200 342
Marqués de Valdespina, 10 (ERMUA) Tel. 943 170 054 Faxa: 943 176 901

J. Etxeberria 5 (Tel. 943 200 336 / 943 200 069 - Faxa: 943 200 342) EIBAR
Marqués de Valdespina 10 (Tel. 943 170 054 - Faxa: 943 176 901) ERMUA

emansl@infonegocio.com

BOTOA EMOTERAKUAN

1.- Zelan ikusi dozu KANPAINIA?

2.- Zelako EMAITZAK espero dittuzue?



MIGUEL DE LOS TOYOS (PSE-EE)

PSE-EEko ziñegotzixa 11.30xetan jua zan Urkiko eskolara bere botua emotera. Girua lasaixa bazan be, animatzen jua zan goixa aurrera jua ahala.

- 1.- Aterik ateko kanpaiña haundixa egin dogu herrixan, gure gertutasuna erakusteko. Lana ondo egin dogu eta harro gagoz horregaittik.
- 2.- Betiko emaitza onak espero dittugu, eta herrixa kudeatzen jarraitzia, gure proiektuak aurrera etaratzeko.



MIREN SOJO (EAJ-PNV)

Goizeko 10.00ak aldera jua zan San Andres eskolara Miren Sojo, botua emotera. Ordu horretan oindiok lasai eguazen mahaixak, jende gitxi zebillen-eta.

- 1.- Bihar haundixa egin dogu programia preparatzen. Baiña, bestien aldetik kanpaiña pixkat zikiña izan da eta hori ez da guretako ona.
- 2.- Uste dogu emaitza onak lortuko dittugula. Sei ziñegotzi etaratzia pentsatzen dogu eta, zorte pixka batekin, alkatia.



MARIANO LUKE (EAE-ANV)

San Andres eskolan emon eban botua Mariano Lukek, goizian. EHNarekin identifikatzeko trabak ipiñi zetsazen arren, azkenian lortu eban bere eskubidiaz baliatzia.

- 1.- Barrero be kanpaiña antidemokratikua izan da, oztopo mordua ipiñi deskuez, baiña bihar haundixa egin dogu danengana aillegatzeko.
- 2.- Bestiak euki dittuen baldintzak ez eukitzian, oso gatxa da ezer aurreikustia, baiña aurrekuari eustia edo zeozer igotzia espero dogu.



AITOR BAROJA (EB-Aralar)

San Andres eskolan tokau izan jakon botua emotia Aitor Barojari, eta 12xetan jua zan bertara, batakina eta bestiak barriketan ibilli eta gero.

- 1.- Kanpaiña luzia egin jaku, baiña ilusiñoz hartu dogu, indar bixen arteko batasunak berrindartu egin gaittu-eta.
- 2.- Gure asmua Udalian zinegotzi bat gehixago eukitzia da, eta oinguan lortuko dogula uste dot. Itxaropen horrekiñ egin dogu lan.



MIREN KRISTOBAL (EA)

Egogain Gerontologia Zentruan emon eban botua Miren Kristobalek, 11.30xetan. Ordu horretan oindiok oso jende gitxi zebillen botua emoten.

- 1.- Bestien proposamenak eskasak dira, gure programia da PSE-EEren herri ereduari beste alternatiba bat emoten detsan bakararra.
- 2.- Kanpañiako erantzunak ikusitta, emaitza positibua espero dogu. Gitxienez dakagunari eustia espero dogu eta, ahal bada, igotzia.



CARMEN LARRANAGA (PP)

Musika Eskolako atiak zabaldu orduko aillegau zan Carmen Larrañaga botua emotera. Eguraldi ona, baiña jente gitxi eguan kalia.

- 1.- Kanpaiña politikuak jentia ilusionatzeko izan biharko zan, ez liskarrian ibiltzeko gure artian. Oingua be halakua izan da, zoritxarrez.
- 2.- Emaitzak asmau ezin badira be, gure asmua herrixan beste zinegotzi bat lortzia da, baiña azken erabagixa eibartarrona da.



ERREHABILITAZIO FUNTZIONALAREN ZENTRUA OSAKIDETZA - MUTUA - ASEGURUA ETA ABARREKIN KONTZERTATUA

CRF AMOSTEGI



- * Fisioterapia
- * Logopedia
- * Kirol medikuntza
- * Osteopatia
- * Perineologia
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 behea
20600 - EIBAR

e-maila: info@crf-amostegi.com
www.crf-amostegi.com

Tfnoa eta Faxa
943 20 34 46



Tel. (24 ordu):
608 17 17 19
620 06 73 26

Tel.-Faxa: 943 70 06 69

Taxi eta mikrobusen alokairua. Gidariekina

4, 9, 14, 17 eta 19 jarleku

Era guztietako ekitaldietarako

Luxuzko Mercedes taxia

	PSE-EE	EAJ-PNV	EB-Aralar	EA	PP	Baliogabeak	Zuriak
AMANA	860 (%65)	118 (%9)	79 (%6)	33 (%2)	119 (%9)	91 (%7)	18 (%1)
IPURUA	838 (%45)	327 (%17)	194 (%10)	122 (%7)	105 (%6)	250 (%13)	37 (%2)
MUSIKA ESKOLA	462 (%32)	335 (%23)	157 (%11)	160 (%11)	118 (%8)	184 (%13)	26 (%2)
GERONTOLOGIKOA	306 (%51)	75 (%12)	48 (%8)	39 (%6)	51 (%8)	75 (%12)	11 (%2)
SAN ANDRES	786 (%34)	509 (%22)	228 (%10)	223 (%10)	178 (%8)	348 (%15)	33 (%1)
UDALETXEA	951 (%35)	673 (%25)	251 (%9)	248 (%9)	189 (%7)	360 (%13)	44 (%2)
URKI	889 (%58)	201 (%13)	108 (%7)	55 (%4)	98 (%6)	172 (%11)	12 (%1)
URKIZU	956 (%37)	553 (%22)	269 (%11)	282 (%11)	185 (%7)	272 (%11)	38 (%1)
GUZTIRA	6.048 (%42)	2.791 (%19)	1.334 (%9)	1.162 (%8)	1.043 (%7)	1.752 (%12)	219 (%1)

ARGITARATZAILEA:
"...eta kittol!" Euskara Elkarte.
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar.
Telefonoak: 943-206776 / 943-200918.
www.etakitto.com

BABESLEA:
Eibarko Udala.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

LAN TALDEA:
Maider Aranberri, Juan Andres Argoitia,
Isabel Arregi, Naiara Azpeitia,
Ihintza Fernandez, Silbia Hernandez,
Ainara Labado, Ainhoa Luz,
Koldo Mitxelena, Ainara Riveras.

KOLABORATZAILEA:
Eneko Astigarraga.

ARGAZKIAK:
Amaia Jaio, Koldo Mitxelena.

DISEINUA / MAKETAZIOA:
Jose Luis Gorostegi.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu, Belen Ulazia.

TIRADA:
6.000 ale.

BANAKETA:
Ihintza Fernandez, Anartz Mitxelena.

INPRIMATEGIA:
Gertu koop. (Onati).

COPYRIGHT-A:
"...eta kittol!"

LEGE-GORDAILUA:
SS/430/92.

ISSN:
1132-1679.

"...eta kittol!"-k ez du bere gain
hartzten ale honetan adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.



ENEKO ASTIGARRAGA
(soziologia)

Kolaborazioa

Aldaketa gutxi eta abstentzioa gora

Orain dela lau urte gertatu zen bezala, oraingo hauteskundeetan eibartarrek hautatutako aukera politiko guztiek ez dute izango ordezkari-tza Udalean. Eibarko herrira mugatutako gaia izan ez arren, arazoa konpondu barik denbora luzeegia daramagu.

Ulegaitza egiten zaidan Alderdien Legearen ondorioz, kilometro gutxitara dugun Elgeta, Soraluze, Bergara edo Markinan baliozkoak diren alderdien zerrendak eta bozkak baliogabetu egin dituzte Eibarren.

Egin beharreko gogoeta guztiak egin eta gero, ez dirudi hauteskundeok interes handirik sortarazi dutenik eta abstentzioa irabazlea izan dugu: %37,8koa izan da, orain dela lau urte baino 10 puntu gehiago.

Pare bat berrikuntza nabarmen izan ditugu Eibarren: EAJ eta EA bakoitza bere aldetik aurkeztu direla eta, aldiz, Ezker Batuak eta Aralarrek indarrak batu eta koalizioan aurkeztea erabaki dutela.

Hala ere, ez dugu izan aldaketa handirik Udaleko eserlekuen banaketan. Badirudi aldaketa bakarra PPK zinegotzia galtzea eta EB-Aralarrek bat irabaztea izan dela.

Eibarko PSE-EEko zerrendak ez du beste toki batzuetan izan duen gorakada, Foru Aldundirako hauteskundeetan, esate baterako. Ez dago argi portzentaia altuetatik abiatzen zelako edo boterean hainbeste urte izateak eragiten duen desgasteagatik, baina 1.700 boto gutxiago jaso arren, erraz eutsi die herritarren bozken ehunekoei.

Zazpi zinegotzirekin eskuratu zuen alkatetza PSEk, bederatzira igo zen gero eta hamaika zinegotzirekin gehiengo osoa erdiestera ailegatu izan da. Hogei urte bete ditu PSEk Eibarko alkatetzan eta, egia esan, zerrenda buru berak segitzen badu, zail samarra da alkatetzarako alternatibarik aurreikustea.


EAJ-k eta EAK elkartuta lortzen zituzten zinegotzi kopuru bera erdietsi dituzte oraingoan bananduta, zazpi eserleku Udal batzar aretoan. EAJ-k bost zinegotzi eskuratu ditu eta Eusko Elkartasunak eserleku bi. 1996 urtean, EAJ eta EA bananduta joan ziren azken urtean lortu zituztenak.

Bestalde, Ezker Batuak zinegotzi bat gehiago lortu du Aralarrekin koalizioan joanda, baina alderdi gehienek bezala, boto kopurua txikiagoa izan du aurreko hauteskundeekin konparatuz. Azken hauteskundeetan joerari jarraituz, PP-k botoak galtzen segitzen du. Baliogabeko botoen kopuruak, aurreko hauteskundeetan bezala, lehengo portzentaia eutsi dio eta %12aren inguruan geratu da.

Beraz, Eibarren ez da izango aldaketa handirik eta Arriolak ez du izango arazorik alkatetzan hogei urte betetzeko.

Foru Aldundirako hauteskundeetan, aurreko urteetan ez bezala, PSE-EEK irabazi du Eibarren eta baita Gipuzkoa osoan ere, 16na diputatu lortu arren, 5 bat mila boto atera baitizkio EAJ-ri.

Ez da errazegia Foru Aldundiko Gobernua osatzeko bidea aurreikustea, aukera bat baino gehiago dago-eta: Jaurilaritzan antzera, EAJ, EA eta EB-Aralarren arteko akordioa, EAJ eta PSE-en artekoa edo, agian, EAJ Aldundiko gobernutik kanpo utzi dezakeen koalizioaren bat. Hurrengo egunetan hasiko dira negoziazio eta sukalde lanak.



... 15 urte eibartarren
irribarrea pizten

- ✓ Implanteak
- ✓ Zuritzea
- ✓ Ortodontzia
- ✓ Hortz-estetika



Bista Eder
CLINICA DENTAL • HORTZ KLINIKA

Bista Eder, 19 - behea
Tel. 943 70 00 82 / 943 20 84 75

Bete-beteen asmatuko duzu.

Estilografico
1990etik



ESTILOGRAFICO
PUBLIZITATE KOMUNIKAZIOA ETA DISEINUA.

Bidebarrieta, 27 B - 20600 EIBAR
Tel. 943 82 13 00 - Faxe 943 82 12 99

www. **Estilografico** .COM

BALORAZIOAK

PSE-EE (IÑAKI ARRIOLA)

"10-11 zinegotzi espero genituen, baina azken uneraino ezin izan dugu 11.a konfirmatu. Pozik gaude gehiengo absolutuari eustea lortu dugulako. Proiektu askok beste taldeen laguntza beharko dute, herri mailan ñabardurak ez dira horren garrantzi-

tsuak, denok nahi dugu herriaren alde lan egitea. Partehartzea jaitsi da, baina ulertzekoa da beste maila batzuetatik ailegaten diren mezuak nahastu eta jendea aspertu egiten dutelako, gure mezua konkretua eta herri mailakoa izanda ere".

EAJ-PNV (AITOR ALBERDI)

"Gure emaitzari dagokionez, lehen EAekin koalizioan gindoazenean, 7 genituen; eta orain, 5 eta 2. Beraz, genuen ordezkari eutsi diogu eta emaitza positiboa da. Nik pentsatzen dut oraingoan ere koalizioan joanez gero, zortzitik gertu egongo ginate-

keela. Alderdi sozialistak berriz ere gehiengo absolutua ateratzeari dagokionez, ez da albiste ona. Horrek esan nahi du alderdi sozialistarenganako fidelotasun handia dagoela, baina, guretako behintzat, desengainu handia izan da".

EAE-ANV (IRENE ZARRAUA)

"Ditugun datuekin lehengoari eusten diogu edo zeozer igo. Erroldan 1.500 lagun gutxiago egon dira eta abstentzioa altuagoa izan da. Horrek gure botoen igoera handia izan dela esan nahi du. Lau urte ilegalizatuta egonda eta gure kanpaina normaliza-

tua izan ez dela ikusita, lorpen handia da. Hirugarren indarra gara. Herri honek ez du ilegalizazio onartu eta bake biderako eta prozesu demokratikorako apustua egin da. Gure botoak errespetatzeko deia egin diegu beste alderdiei".

EB-ARALAR (ELIXABETE GOMEZ)

"Ordezkaritza bikoiztu dugu Udalean eta datuak ikusita, herriko hirugarren indarra gara, beraz, oso pozik gaude alde horretatik. Herriarek gudan euren konfidantza erakutsi dute eta orain ezin diegu huts egin. Gure helburua PSE-

EEren gehiengo amaitzea zen, oso politika personalista egin du orain arte eta. Baina ez dugu lortu. Horrela, ezinezkoa egiten zaigu alderdi guztiei proiektu berriak aurrera ateratzea eta modu pluralean gobernatzea".

EA (MERTXE GARATE)

"Pozik gaude EAk hauteskunde hauetan lortutako emaitzarekin, nahiz eta azkenengo helburuzat genuena ez lortu, hau da, PSOeri Eibarko Udaleko alkatetza kentzea. Hala ere, kanpaina behin eta berriz esan dugun moduan, guk herritarren-

tzako lanean jarraituko dugu hurrengo lau urteetan Eibarko Udalean, horretan ez izan zalantzarik. Gainera, penagarria izan da EAE legez kanpo lagatzea gure herrian, izan ere, horrek PSOeri indarra kenduko lioke".

PP (REGINA OTAOLA)

"Zinegotzi bat galdu egin dugu, baina ez dugu sorpresarik hartu: azken aldian gure alderdiaren kontrako giroa nagusitu da eta horrelako zerbait gertatzea espero genuen. Genituen zinegotzi biei eustea gustatuko litzaiuke, baina ezin izan dugu. Arriola zo-

riondu dut eta, hemendik aurrera, udaletxean egongo den zinegotziak lanean jarraituko du, ia hemendik lau urtera berriro gora egiten dugun. Jende asko daukagu aldamenean eta botoa eman diguten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu".

HURRENGO LEGEALDIRAKO ZINEGOTZIAK



Iñaki Arriola (PSE-EE)



Miguel De los Toyos (PSE-EE)




Maria Jose Telleria (PSE-EE)



Miren Gallastegi (PSE-EE)



Jose Luis Vallés (PSE-EE)



Arcadio Benitez (PSE-EE)



Nerea Alustiza (PSE-EE)



Ana Rodriguez (PSE-EE)



Miguel L. Gereñu (PSE-EE)



Carmen Retenaga (PSE-EE)



Benjamin Atutxa (PSE-EE)



Aitor Alberdi (EAJ-PNV)



Eva Juez (EAJ-PNV)



Javier Zorrakin (EAJ-PNV)



M. Luz Balenziaga (EAJ-PNV)



Karlos Gonzalez (EAJ-PNV)



Elixabete Gomez (EB-Aralar)



Aitor Baroja (EB-Aralar)



Mertxe Garate (EA)



Jesus Rementeria (EA)



Regina Otaola (PP)



Tfnoa: 943 74 18 00 / Faxa: 943 74 17 60
P. M. Urruzuno, 31 - behea (ELGOIBAR)


Tfnoa. (4 linea): 943 20 16 80
Faxa: 943 20 18 41
E-maila: denolans@denolan.es
Bidebarrieta 38-40 (EIBAR)



Bidebarrieta 38-40 (EIBAR)
Tfnoa: 943 20 16 80
Faxa: 943 20 18 41

ASEGURU ARTEKARITZA

Donibane Plaza, 4 (ZARAUTZ)
Tfnoa: 943 89 55 05
Faxa: 943 89 49 20



Errebal, 6 - behea

Tel / Faxa: 943 20 12 13

I N M O B I L I A R I A

IBAIONDO